

Donostia, 2017ko uztailaren 14a

IDAZKARI NAGUSIARI

ARROBITXULOKO PARKEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldeko bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, Arrobitxuloko parkea egokitzeari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Bide Publikoetako eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkari Miguel Ángel Díez Bustosi GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko martxoan inauguratu zen Donostiako lehenengo parke estalia, Intxaurren eta Herrera artean. Parke hori Intxaurren-Herrera bidegorriaren ondoan dago eta Arrobitxuloko parkea esaten zaio. Haurrentzako jolasgune estalia, rokodromoa, piknik mahaiak, helduek ariketa fisikoak egiteko guneak eta bizikletentzako arrapala-zirkuitua dauzka.

Parke horrek harrera bikaina izan du, inguru horretako auzotarren aspaldiko eskaera baitzen. Intxaurrendoko Txaparrenen garatutako multzoari jarraipena eman dio, eta bi auzo (Intxaurren eta Herrera) azkar eta eroso lotzen dituen konexioa da. Bestalde, bidegorriak Donostiako erdialdea ere lotzen du Buenavistarekin eta Pasai Antxorekin. Horrenbestez, Donostiako erdialdea eta ekialdea hainbat kilometrotako bidegorriari esker zabaldu da.

2016ko maiatzean mozio bat aurkeztu genuen Udalbatzan, eremu batzuetan obra-hondakinak daudela eta parkean komun publikorik ez dagoela kontuan hartuta. Une hartan erantzun hau eman ziguten:

1. Proiektuan ez zela aurreikusi komun publikoak jartzetik, eta hurrengo urteko aurrekontuetan partida bat jarriko zela komunak egiteko.
2. Proiektuan aisiarako eremuak kontuan hartu zirela (ez lorategiak) eta hurrengo urtean egingo zirela lorategiak.

Urtebete baino gehiago igaro ondoren, auzotarrek komunitate lana egin zuten joan den hilean, parkeari azken ukitua emateko eta lorategi zonetan artean zeuden obra-hondakinak kentzeko.

Funtsezkoa da, gure iritziz, sortu den egoeraz ohar dadila Udala, izan ere, urtebete geroago lanak bukatu gabe zeuden, eta inguru horretan komunak jartzeko premia ere gogorarazten dugu.

Hilabete honetako batzordean, sortutako egoerari buruz eta parkea nahiz inguruko eremuak egokitzean izandako atzerapena dela eta zinegotzi ordezkariari egindako interpelazioaren ostean aitortu zuen atzeratu egin zirela eremu horretan instalatuko den komun eramangarriaren proiektua lizitatzean. Bestalde, aitortu du lorategiak jartzeko asmoa zutela baina ez dagoela horretarako partidarik.

Hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Arrobitxuloko parkean komun publiko bat jar dezala hiru hilabeteko epean, urtebete baino gehiago funtzionamenduan egin ostean parkea egokitzeko lanak burutze aldera.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio aurrekontuko partida bat jar dezala, ahal bezain laster, Arrobitxulon lorategi eremuak sortzeko, parkea oro har hobetze aldera.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.